

## HITZAURREA

Egilea: Juan San Martin

Aldez aurretik esan beharra dut, inguruko lekukotasunaren bilketaz oso ongi diharduela Ego-Ibarra taldeak; zeren, geografiaz eta mendez, gehientsu-  
netan hor aurkitzen bait dira ikergaietarako kidetasunak materialak aztertze-  
ko orduan. Orain ere badu horrek zer ikusirik XVII. mende hondarrera garama-  
tzan testuarekin.

Igazko otsailean eman zidan adiskide Antxon Narbaitzak 1685. urtean Migel Bazterretxeak Untzaga Plazan jende multzo baten aurrean kantatu zituen koplek berria, fotokopia ilun bat eskuratuz. Paleografiazko zuzenketa batzuk egin nizkion, baina hala ere zenbait zalantza gelditu zitzaizkidan, oraindik ere guztiz argitu gabeak.

Kopla iraingarri horiek hamaika istilu sortu zuten Eibarren eta ondorioz preso hartu eta epaitu zuten M. Bazterretxea. Epaketan zionez, jendeari entzunaz ikasiak omen ziren, baina ez berak asmatuak. Behar bada bere burua gordetzearren aitortu zuen hori. Denadela, ezin genezake ziurtatu koplek egiletzat.

Itxaso deiturako eskribaua izango zen epaitegirako bertso horiek idatzirik ipini zituena. Eta ezin esan zehatz jasoak direnik. Bere kaxara idatzi zituen, garaian ohi zen euskal grafiaren berririk gabe eta esan nahaiaren funtsari lotuago bertsoen teknikari baino.

Juan Mari Lekuonak begi zorrotza jarri dio eta egiten duen analisi zehatza ematen digu. Antzinako lauko edo egungo zortziko nagusiaren neurria argi nabari da; hamazortzi silabaz osatzen bait dira, hamar eta zortzian puntuak beteaz; etenak, ordea, bost eta bost, eta bost hiru eginaz. Haregatik, tarteka

aurkitzen diren hutsak transkribatzailearen eskutikakoak dira, noski. Arauetan oinarriturik igarri behar hutsunok zertan diren, eta nola bete. Baina hori, bakoitzaren baitara utz dezagun.

Garrantzikoena, literatura aztergai, era hori duela hirurehun urte erabili zela eta ez nolana. Badirudi lehenagoko tradizio bati loturik zetorrela. Hala uste. Zeren, garai berean, neurri horren arabera dira Mondragoeko Artxibategian Pedro Uribarrenak aurkitu zituen bertso haiek, 1682. urteko agirietan. Ikus Ibon Sarasolaren “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos” Urkixo Mintegiak argitaratutako lanean <sup>1</sup>. Eta, lan berean, beste bat mende berekoa, Mutrikuko Txurrukatarren artxiboan aurkitua eta J.A. Lakarrak ezagutzera emana <sup>2</sup>.

Zeloak ordea, zeintzuren artean? Hori litzake gai edo bere eragingarria. Ugartek atera bazuen saltsea, itxura batean badirudi bertsoa bera izan zitekeela, baina amoraduetariko bat ez ote? Zeloagatik enojatuta haserratu zena ez ote?. Zeren Ugarte bait zen Madalentxo bentanarako bidea galduartean zelatan egon ohi zena. Beraz, bikarioarenganako zeloak zituen eta horrek eroango zuen kalean publikoki boltsea eskatzera. Eta zelodunen artean Ibarrekoak (Errebaleko Ibarra jauregikoak noski) bakeak egitera.

Nere oroitzapenetan ez da ezer Eibarren bildu edo entzun ditudan kanta zaharretan kopla horietakoeri zenbait antz emango dionik, neurri arruntagatik doinuren bat izan ezik. Baina letraren aldetik ezer ere ez.

Aipatzen diren toki-izenak zein diren ezagutarazteak argi gehiago emango digu gaiaren inguruan eta merezi du hortaz saiatzea. Hara hemen nere uste batzuk, kasik seguru ziurtatzekoak:

*Ulsaga, Usaga*, sarreran kantalekutzat jartzen dena, auzo edo plaza bezala, Untzaga baizik ez da.

*Errebaleco calea*, gaur egun ere Errebal kaletzat oso ezaguna den bera.

*Ibarrecoac*, Ibarra jauregikoak, noski. Kontadorekua, Errebalean 1493. urtetik ditugu haren agiriak, batzutan Ibarra Suso bezala, non egiten ziren antzina hiriko batzarrak Udaletxea eraiki baino lehen. Errege Karlos Enperadorearen kontadore zen Pedro Ibarragatik hartu zuen Kontadorekua izentzat <sup>3</sup>. Eusebio Zuluagak erosi zuen 1861ean eta han jaio ziren Plazido semea eta Ignazio biloba. Ikus, berri horiek, “*Los Zuluaga*” liburuaren 197-198. orrialdeetan.

*Mirabales*, nere ustez ezin besterik izan Aldatze jauregia baizik. Horregatik dator ondoko lerroan “Aldasetican”, eta 13. bertsoan berriz, “mirabaylesco Palacioac”. Gure egunok arte zutik iraun duen jauregia, orain kolegio dena.

*Macharirean*, Matxaria auzoa, noski. Badirudi arkaismo bat dela atzizkian eta Macharitikan bezala ulertu behar dela. Hala bait zen Andra Milia Lasturkoaren eresi zaharrean: *Iausi da cerurean arria*, zerutikan harria esan guraz. Ikus Mitxelenaren *Textos arcaicos*-en 3.1.5. atala.

Bestalde, Eibarko jatorrizko deiturak ageri dira epaiketako agirietan. Ez dute ezer ikustekorik bertsoen barruan, baina merezi du horiek aipatzea.

*Elzarzaga*, Eltzartzaga (batzutan -ç- -z-ren ordez). Gure egunotan Eltzartzaga bezala ezagutzen dugun baserria, Azitain aldean, 1601 urtetik dokumentatua.

*Basterrechea* eta *Ugarte*, jatorriz ez dira Eibarkoak.

*Ichaso*, herriko eskribau zena ordea, itxura denez bertsoak transkribatu zituena, izan zitekeen Itxaso baserriko jatorrizkoa; etxearen agiririk ez dugu aurkitu joan zen mendera arte.

Domingo Olabe, ikusten denez, garai haretan Untzaga torre zaharreko nagusi eta biztanle. Torretxe hura, Martin Isasi eta bere emazte Domenja Orbeak eraikia zen XVI. mendean. Jaun berak seme Antonio Tolosako Idiakeztar batekin ezkontzean jaso zuen Isasi torretxea, bere ondoan komentua eraikiz. Oraindik zutik irauten duen torretxe hontan jaio zen Juan Isasi Idiakez, errege Felipe IV.aren “ayo”, hau da, semeen maisu, eta bertan bizi izan ziren Franzisko Fernando eta Baltasar printzeak. Horietako lehena hor bertan hil zen 1634. urtean. Eta, anai gazteagoa zen Baltasarrek euskaraz zerbait ikasi omen zuen, zeren gogoko omen gure hizkuntza. Hala agertu bait zuen Juan Isasik Gipuzkoako Batzar Nagusiari idatzi zion gutun batean. Gutun hori, zein gainerako berriok, Gregorio Mujikaren Eibarko *Monografian* aipatuak datoz.<sup>4</sup>

*Gorostieta* eta *Zumaran* ere, zer esanik ez da, Eibar bertako deiturak ditugu.

Gauzak argi uzteko, agiri horien arabera, esan dezadan euskaldunoi ez zitzaizela gaizki joan inperialismo haren martxa. Harreman onak zirenez Gaztelako koroaren mailarik gorenetan karguak osatzen zituztenean. Honegatik, A. Narbaizaren sarrerako hitzak ez datoz bat, gizarte giroz, historiarekin. Mende bakoitzak bere inguru giroa bait du. Horren adierazgarri, jakina da erromantiko mugimenduaren eraginez Euskal Herria lozorrotik iratzartu zela bere izatearen kontzientziaz jabetzeko, Europako beste herri asko bezala.

Baina kopletera itzuliko gara, gaiaren hariari jarraituz. Neurriak, kantatu ahal izateko, oraintsuagoko bertsoak dakarzki neure burura, zelorik gabeak nonbait baina amorante kontukoak “autobatzailleak esaten ei ebenez” Azitaingo Untzuetara jauregiko gertariz, handik hurbil bizi zen Orbe bertsolariak jarriak eta gure adinekoentzat oso ezagunak, “Ermeren burua eta garunak ez dare kondiziñuan...” hasten direnak. Bertso horien doinuz eta gaur egungo grafiaz ipinita ulergarriago aurkituko ditugu. Hara hemen:

1. Kontu barri bat zuzedidu da errebaleko kalean,  
errebaleko kalean eta andragazteen artean.
2. Zeloak gora zeloak beera zeloak euren artean,  
Ugartek orain aterako dau saltsea bere gainean.
3. Bikarioa dogoa (doguna?) legez alegre eta librea,  
andra guztiok bateren beste a darabile maitea.
4. Amodioa zoro da beti amoraduen artean,  
Ugartek orain probatzen ditu zeloak zertzuk direan.
5. Barikua soila da legez arik zapatu goizeko,  
ordubietan presente dago Bikarioaren aurrean.
6. Zeloegatik enojaduta aserre zite zanean,  
bere boltsearen eskatu jako publiko kale batean.
7. Aek alanik iragoarren Ugarte beti kalean,  
Magdalentxori bentanarako bidea galdu artean.
8. Falta eztitu adiskideak Ugartek bere aldean,  
ibarrekoak egin ditue bakeak aen artean.
9. San Kristobalgora señaladuta merienda formatu,  
San Kristobalez akordatuta Mirabailesen juntadu.
10. Aldatzetikan Bikarioa ta Matxarirean Ugarte,  
Ibarrekoak aldean ditu bere laguntzat an bere
11. Etxean ondo giaduarren ara ordu(ko) otzitu,  
berotu baga meriendea jan ezin leike ziertu.

12. Sua da legez gauza bearra aldean dabe ifini,  
ango abarrak argi dakie erri guztiti (ageri)
13. Mirabailesko Palazioak obato dakiz kontuak,  
osterera bere egingo dituz bakotxak bere kantuak.

Hala ere, bertako zenbait puntu eta hitzek oharrak behar dituzte, nere iritzien araura, eta aztergai erabili den zenbaketaren ordenaz.

Hauek dira:

3. *dogoaleguez*, dogoalegez. Baditeke *doguna legez* izatea.
4. *amorado*, enamoratua, enamorado. Ikus Mitxelenaren “Textos arcaicos vascos”, 3.1.11. eta Igarguen-Cachopin lekuko, Salinasko kondeari, Mungiako gudua galtzean, 1471. urtean Bilbon kantatu ziotena dakar: “Calean bera burua bax(.)n daroa. Ser ete dan amoradu guexoa”.
5. *goiseco*, goizerako-ren laburpena. Nonbait, astean behingo bisita soila ohituraz edo akordioz eta horregatik adierazi nahi du barikua, larunbat goizera arte, soila dela.
6. *zite*, testuaren arabera eta bertso neurria zaindu beharrez, aserretu zitezenean, baina bigarren hau gaizki esana legoke.  
*Volsearen escatu*, antzinatek ohiturazko izan denez bidera irten eta boltsa edo bizia eskatzea, hortik nori “boltsearen” eskaria. Era berean, azpijan edo irutxur antza du.
7. *Aek alanic*. Haiek hala izanik.  
*Aek alanic yragoarren*. Haiek halan iragoarren (pasatu arren).  
*bentanaraco videá galduartean*, Ugarte beti kalean, Magdalentxok leihora bidea utzi arte zelatan egoten zen itxura du. Horregatik uste dut zeloz beterik amoranteetariko bat zela.
11. *ordu*, hemen *ordu*-ren orde *orduko* ez ote?, zeren neurriak eta esan nahiak hori eskatzen bait du.
12. *guztiti*, neurriak eta gaiak eskatzen duenaren arabera, honela osatzera ausartuko nintzateke: *guztiti ageri*.
13. *obato*, obeto. Eibarren, gaur ere, ohizko da obe-ren orde oba erabiltzea.

*contuac*, irakurtzen da azken hitzean, baina zalantzarik gabe *kantuak* izan behar du, bestela poto egiten du.

Argibide horien ondorean, hitzaurre hau bukatzeko, dokumentu zaharrak urri ditugula aitortu beharrez, leku-izenen zenbait bilketaren garrantzia aipagarria egiten zait eta horretan ahaleginik aski egin dut hitzak eta tokiak noiztikakoak ditugun katalogatzen; hemen ikus ditzakegun bezala, argibideetarako lagungarri ditugulako. Hor aurkeztuko nituzke, besteak beste, Eibarko baserri izenak kronologia oharrez, Erdi-Aroko toponimia eta botanika lexikoa etxe izenetan edo erreka izenak<sup>5</sup>. Beharrezko argibideak gure herriko ikerkuntzen lagungarri.

Bukatzeko, Eibarko edo Eibarren sortutako kanta zaharren aipamena egingo dut, gaur aurkeztu dugun XVII. mendeko hau ere gure historian literatura izpi soil bat bezala gelditu ez dadin. Aurrekoek honekin ez dute ezer ikustekorik gai eta eragin edo motibazio aldetik, baina bai ordea kantak sortzeko ahalmenaren erakusgarri. Eta nork daki zer ez zaigun galdu hemen denboraren zehar.

Epika eta erromesko bi kanta baizik ez ditut aipatuko, horiek besterik ezagutzen ez direnez.

Oinaz eta ganboarrek 1390. urtean Akondia mendian gudu gogorra eduki zuten, Iburguen-Cachopin eta Lope Garcia de Salazarrek beren kroniketan aipatzen dutenez. Haren ondorioz kantatzen omen zen hain ezaguna zen hura:

### “Acundia, lejarr(...)ga lejarbaga”

Lehen hain lexarrez betea zen tokia lexarrik gabe geldi arte<sup>6</sup>. Baina, zoritarrez, hain hedatua zen kanta horren hasiera baizik ez zuten eman kronikagile haiek, oso ezaguna eta erabilia zen usteaz ez zitzairen iduritu osorik ematea, eta gaur egun ez da ezagutzen kanta hura. Zer lastima. Hala ere, nork daki oraindik agiri zaharren batean ez ote zaigun agertuko, oraingo hau bezala.

Erromesen kantak ordea, Aita Donostiaren artxiboan aurkitu nituen, Aita Jorge de Riezuri esker. Musikologo aipatu harek XVI. mendekotzat katalogaturik zituen eta zatitxo bat besterik ez zuen argitaratu, bere gisara egin zizkion aldakuntzekin eta koruan kantatzeko armonizaturik, “Andre Mari gozoa” jarriarik izenburuz “Obras Musicales” sailean<sup>7</sup>.

Kanta hori, **Arrateko zelaiko/bai floridadea; andixek gora dago/zerura bidea...** bertsoz hasten da. Artxiboko oharretan agertzen denez, D. Policarpo Larrañaga apezak igorri zizkion. Hori eta beste zenbait Odon Apraizen omeneko liburuan argitaratu nituen, "Arrateko Kantategia" izenburuz. Ondoan datoz Aita Ormaetxebarriak XVII. mendekotzat argitara zituenak ere (8).

Norbaitek pentsatuko du, gure herriko agiriok ea zergatik argitaratu nituen bertatik hain urrun; baina, nere aldetik aitortu beharra dut garai haietan nere langintza horiek ez zirela hain ongi ikusiak, euskara konprometigarria zelako eta, bestetik, edonoren probetxurako espezializaturik zeuden aldizkarietan eta omenaldi liburuetan argitaratzea komeni zelako.

Hemen, gure herrian, ez zen orain Ego-Ibarrak eskaintzen digun bezalako aukerarik. Honela izan balitz, bertan ikusi ahal izango zuten lehen argia. Orain eta hemen, nere eskaintza apala litzake hautagarrienak bertan birargitaratzea. Gehiagorik ezin nezake eman gutxiagotatik.

Antxon Narbaizaren aurkikuntza hau, XVII. mendeko amorio kanta lehen aldiz Ego-Ibarraren ekintzetan argitaratzea ohoregarri da talde ekintza bezala. Gure literaturaren kimu urriak oinarri jarririk ikerketa eta sorketa lana bizkortzeko.

#### Oharrak:

- 1 ASJU, XVII, (1983), 206. orr.
- 2 " " " , 211. orr.
- 3 MUGICA, Gregorio, *Monografía histórica de la Villa de Eibar*, Irun, 1910 (3ª edición por el Ayuntamiento de Eibar, en 1984). Ikus, Pedro Ybarra Eguiguren, 250. orrialdean eta 255.ean.
- 4 MUGICA, Gregorio, *Monografía histórica de la Villa de Eibar*, 270-272. orrialdeetan.
- 5 Ikus: *Relación de caseríos del término municipal de Eibar, con citas cronológicas*. rev. "Cuadernos de Etnología y etnografía de Navarra" nº 25, 1977, 61-90. orr.  
*Toponástica eibarresa medieval*, "Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae", EHU/UPV, Vitoria, 1985, 995-1006. orr.  
*Botanika lexikoa Eibarko etxe izenetan*, "Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum." ASJU, XIV, Donostia, 1991, 1105-1108. orr.  
*Apuntes sobre hidronimia eibarresa*, I. Jornadas de Onomástica. Toponimia. I. Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Onomasticon Vasconiae- 4. Euskaltzaindia, 1991.
- 6 MICHELENA, L. *Textos arcaicos vascos*, Madrid, 1964, Ref. 3.1.2.

SAN MARTIN, J., *Akondia, lexar gaba (antziñako gerra baten aztarnak)*, Programa oficial de Fiestas de San Juan, Ayto. de Eibar, 1975, 15. orr.

- 7 P. DONOSTIA. *Obras musicales IV* tomo, Marial (1966), 72. orr. eta 40.ean doinua. Baina, ikus liburu berean 155. orrialdean dakarren oharra.
- 8 Ikus: SAN MARTIN, Juan, *Arrateko kantategia*, Vol. "Homenaje a Odón de Apraiz - Odon de Apraizi omenaldia". Vitoria-Gasteiz, 1981, 335-352. orr.